

**1go ERANSKINA: KONTZILIAZIORAKO LARRIALDI-PROGRAMAN PARTE HARTZEKO
FUNTZIONAMENDU-ARAUAK ETA BALDINTZAK**

Jarduera COVID-19ra egokitzeko dokumentua.

Unean-uneko egoeraren arabera eta osasun agintariek agindutakoaren arabera, neurriak zorroztu edo arindu ahal izango dira.

Programan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da baldintza hauek onartzea eta sinatzea:

1. Parte-hartzaileak ez du joan behar eta ezin du jardueran parte hartu COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia aurkezten badu.
2. Jardueran parte hartzen duen pertsonaren batek COVID-19rekin lotutako sintomatologiarik badu, ez da joango eta bere jardueraren arduradunarekin (zuzendaria, begiralea, etab.) harremanetan jarriko da, info@mugarritalka.eus edo 688881337 telefono zenbakiaren bitartez.
3. Parte-hartzaileak ezin du jardueran parte hartu COVID-19 duen pertsona batekin harreman estuan egon bada (bizikideak, senideak eta COVID-19 kasuren bat egon den leku berean egon diren pertsonak, kasuak gutxienez 15 minutuz 2 metro baino gutxiagora sintomak zituen bitartean) edo gaixotasuna duen pertsona batekin lekua partekatu baduzu segurtasundistantzia gorde gabe, sintomarik ez badago ere, gutxienez 14 eguneko tartean. Epe horretan, jarraipena egin behar du, gaixotasunaren sintomak agertzen den jakiteko.
4. Parte-hartzaileak, bere erantzukizunpean, jardueran parte har dezake, baldin eta pertsona zaurgarria bada edo arrisku-taldeko pertsona batekin bizi bada: adinagatik, haurdun egoteagatik edo aurreko afekzio medikoak izateagatik (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa).
5. Parte-hartzaileek, jardueran hasi aurretik, egunero jakinarazi beharko diote beren osasunegoera beren begirale arduradunari, mugikorraren edo beste bitarteko baten bidez.
6. Hurrei tenperatura hartuko zaie serreran, eta sukarra izanez gero etxera joan beharko du. Horregatik oso garrantzitsua izango da guraso/tutore/arduradunak disponible egotea bere jasotzera etorri beharko balu.
7. Ondoren, gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte eta beren taldearekin batuko dira.



8. Derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea 2 metroko distantzia ezin bada gorde, beraz, haur guztiek etxetik ekarri beharko dute maskara, eta sarreran erakutsi. Jardueran zehar galduz gero, parte-hartzaileei maskara bat emango zaie.
9. Printzipioz, partehartzaile bakoitza bere taldekideekin bakarrik erlazionatuko da.
10. Era berean, beste edozein arrazoi dela-eta partehartzailea ez bada egunen batean jarduerara joango, horren berri emango zaio begiraleari edo programaren arduradunari info@mugarritalka.eus o 688881337 telefono zenbakiaren bitartez.
11. Partehartzailearen bat edo hezitzailearen bat Covid-19rekin gaixotzen bada edo susmoa badago, Osakidetzako protokoloak jarraituko dira, eta egoeraren arabera gerta liteke talderen batean jarduera bertan behera geratzea. Kasu horretan, kuotaren zati proportzionala itzuliko litzateke.
12. Partehartzaileek ezin dute inolako materialik eraman etxetik (Eskaera konkretua ez ezik). Hezitzaileek emango diete behar dutena. Partehartzaile bakoitzak bere janaria eraman ahal izango du (Beharrezkoa denean).
13. Etxebarriko Udalak eta Harribide Fundazioak eskura dituzten protokoloak eta neurri guztiak ardura handiz jarraituta ere, Covid19 kasuren bat agertuko balitz, familiek ezingo dute inolako kalteordainik eskatu ez Udalari, ezta harribideri, salbu eta kuotaren zati proportzionala itzultzea, bertan behera geratu bada jarduera bere seme-alabarentzat.
14. Programazioak, jokoak, irteerak eta abar, unean uneko osasun egoerara egokituko dira.
15. Pertsona orok eskura izango ditu, etengabe, jardueraren lekuan eta amankomuneko lekuetan (sarrerak, komunak, topagunea, etab.) ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera eta baita gel hidroalkoholikoak edo Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako eskudesinfektatzaileak ere.
16. Begiraleak ezarritako prebentzio-neurriak gogoratuko ditu, eta guztion onerako eta segurtasunerako bete daitezela eskatuko du (gainazalak ez ukitzea, segurtasun-distantzia mantentzea, maskara erabiltzea, eskuak maiz garbitzea, etab.), baita instalazioak nola erabili ere (adibidez, aldagelak, komunak, hala badagokio).
17. Begiraleak taldeari jakinaraziko dio nola egingo den jarduera, bisita edo ibilbidea, eta bete beharreko arauak edota izan daitezkeen murrizketak.
18. Ez-betetzetik gertatuz gero, diziplina-neurrien proposamen argia egingo da.
19. Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotuko dira, laneko higiene- eta osasun-arloan eskumena duten agintarien gomendioekin. Eraikinek higiene- eta prebentzio-neurriak hartuko dituzte seinaleztapena ezartzeko, guztiek horren berri izan dezaten, eta



seinale batzuk jarriko dira funtsezko eremuetan, hala nola bainugeletan, jantokietan eta ikasgeletara sartzeko ateetan.

2. ERANSKINA COVID-19. DERRIGORREZKO HIGIENE ETA PREBENTZIO NEURRI PERTSONALEN DOKUMENTUA

1. Ez duzu jarduerara joan behar baldin eta...

- COVID-19rekin lotuta egon daitekeen edozein sintomatologia baduzu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Kasu horretan, zure autonomia-erkidegoko COVID-19 arretarako telefonoarekin edo zure osasun zentroarekin jarri behar duzu harremanetan, eta haren jarraibideak bete. Ez joan pertsona gehiago dauden lekuetara, harik eta zuretzat edo besteentzat arriskurik ez dagoela baieztatu arte. Kontsultatu dekalogoak jakiteko sintomak daudenean nola jokatu. (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCovChina/documentos/20200325_Decalogo_como_actuar_COVID19.pdf)
- COVID-19 duen pertsona batekin harreman estuan egon bazara (bizikideak, senideak eta COVID-19 kasuren bat egon den leku berean egon diren pertsonak, kasuak gutxienez 15 minutuz 2 metro baino gutxiagora sintomak zituen bitartean) edo gaixotasuna duen persona batekin lekua partekatu baduzu segurtasun-distantzia gorde gabe. Kasu horretan, jarraipena egin behar duzu, gaixotasunaren zantzurik agertzen den jakiteko, 14 egunez.
- Parte har dezakezu, zure erantzukizunpean, adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehenagoko afekzio medikoak izateagatik zaurgarria den pertsona batekin bizi bazara (adibidez, hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia edo immunodepresioa). Baina hori arrisku larria izan daiteke zuretzat edo zurekin bizi diren pertsonentzat. 2. Jarduerarako joan-etorriak.

2. Jarduerako joan-etorriak

- Ahal duzun guztietan, lehenetsi pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia ondoen bermatzen duten mugikortasun-aukerak. Horregatik, egoera honetan hobe da banakako garraioa.
- Oinez, bizikletaz edo motorrez bazoaz, ez duzu maskararik eraman behar. Gorde pertsonen arteko distantzia edo jantzi maskara kaletik zoazenean
- Kotxez mugitu behar baduzu, ibilgailua garbitzeko neurriak areagotu, eta ez bidaiatu pertsona bat baino gehiago eserleku-ilara bakoitzean, bidaiarien artean ahalik eta distantziarik handiena mantenduz.
- Taxi bat edo VTC bat hartzen baduzu, pertsona bakarrak bidaiatu behar du eserleku-ilara bakoitzeko, bidaiarien artean ahalik eta distantzia handiena mantenduz.
- Garraio publikoko bidaietan pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde beste erabiltzaileekiko. Autobus publikoen kasuan, gidariak pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela zainduko du. Garraio publikoan bazoaz, derrigorrezkoa da maskara higieniko bat erabiltzea, ez medikoa.
- Erabili norbanako babes-ekipamenduak etxetik irteten zarenetik.



3. Prebentzio- eta higiene-arauak jarduerako begiraleentzat eta parte-hartzaileentzat

- Parte-hartzaileek 10 gazteetako talde isolatuetan (gehienez 15) egingo dituzte jarduera guztiak, eta begirale batek gainbegiratuko ditu une oro. Begirale horrek higiene- eta segurtasun-neurriak hartu eta betetzen direla zainduko du.
- Begiraleek eta parte-hartzaileek 2 maskara garbi izan beharko dituzte eguneko. Partehartzaileek ezin badute hornidura hori ziurtatu, antolakuntzak hartu beharko du bere gain.
- Ahal den neurrian, pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da; maskarak nahitaez erabili beharko dira leku itxietan, eta leku irekietan, segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.
- Eskuak maiz garbitu urarekin eta xaboiarekin, edo soluzio hidroalkoholiko batekin, 40 segundoz. Bereziki garrantzitsua da eztula edo doministiku egin ondoren, edo espazio partekatuetako jardueren hasieran eta amaieran. Jardueran besaurreak agerian edukiz gero, gomendagarria da besaurreak ere garbitzea.
- Eztula eta doministiku egitean estali sudurra eta ahoa erabili eta botatzeko zapi batekin, eta bota ondoren itxitura duen zabor-ontzi batera. Zapirik ez badago, erabili ukondoaren barrualdea eskuak ez kutsatzeko.
- Saiatu begiak, sudurra edo ahoa ez ukitzen. Saihestu ukipen fisikoarekin agurtzea, eskua ematea barne.
- Gomendagarria da langileek eskuak lehortzeko edo "arnas etiketa" betetzeko erabiltzen dituzten erabili eta botatzeko zapiak paperontzietan edo estalkiz babestutako edukiontzietan botatzea.
- Higiene pertsonaleko material oro (maskarak, latexeko eskularruak, etab.) gainerakoen frakzioan utzi behar da (bereiztutako bilketak egin ondoren lortzen den etxeko hondakinen multzoa).
- Sintomak nabaritzen hasiz gero, kontu handiz ibili, bai gizarte-urruntzeari dagokionez, bai higienerari dagokionez, eta jardueraren arduradunei jakinarazi berehala osasun-zerbitzuekin harremanetan jar daitezen.